

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
9/2012	R5/2015	2015-03-02	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Zergaren egiaztapenerako eta ikerkuntzarako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak

R 5/2015 Ebazpena

9/2012 Espedientea

Gasteizen, 2015eko martxoaren 2an

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako hau

## HITZARTU DU

Bizkaiko Foru Aldundiak Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurrean aurkeztutako gatazkari dagokionez; izan ere, bere ustez, berari dagokio 1. ERAKUNDEAREN (IFZ ----) 2007ko eta 2008ko ekitaldietako sozietateen gaineko zergaren egiaztapena eta ikerkuntza gauzatzeko eskumena. Gatazka hori 9/2012 zenbakiarekin izapidetzen da Arbitraje Batzordearen aurrean, Gabriel Casado Ollero jauna txostengile duela.

## I. AURREKARIAK

1.- 9/2012 gatazka Bizkaiko Foru Aldundiak aurkeztu zuen aipatutako Foru Ogasuneko Koordinazioko eta Laguntza Teknikoko zuzendariordeak 2012ko otsailaren 7an prestatutako eta hurrengo egunean, 8an, erregistratutako idazkiaren bidez, Ogasuneko zuzendari nagusiak adostutakoaren arabera. Beste dokumentu batzuen artean, horri Koordinazioko eta Laguntza Teknikoko zuzendariordearen proposamena eta 2011ko azaroaren 23ko Ikuskapenaren Koordinazio Zerbitzuaren buruaren txostena eransten zaizkio, gatazkaren aurrekariak eta Bizkaiko Foru Aldundiaren jarrera defendatzen duten argudioak azalduz.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
9/2012	R5/2015	2015-03-02	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>SZ. Zergaren egiaztapenerako eta ikerkuntzarako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak</i>

2.- Espedienteak honako datu eta aurrekari hauek ditu:

a) 1. ERAKUNDEA (aurrerantzean, «erakundea» edo 1. ERAKUNDEA) Bizkaiko Lurralde Historikoan helbide fiskala duen sozietatea da.

b) Erakundeak 2007ko eta 2008ko ekitaldietako sozietateen gaineko zergaren aitortpenak-likidazioak Bizkaiko Foru Ogasunean aurkeztu zituen, Bizkaiko foru-araudia aplikatuz; izan ere, horren helbide fiskala Lurralde Historiko horretan dago, eta aurreko ekitaldiko eragiketen-bolumena 6/7 milioi eurotik gorakoa zen, baina aipatutako ekitaldian lurralde erkidean gauzatutako eragiketen bolumena % 75 baino txikiagoa zen.

c) BFAk erakundearen interpretazio bera egin zuen; izan ere, Ekonomia Itunaren helburuetarako, Nafarroako Foru Erkidegoa ez da lurralde erkideztat jotzen. Horregatik, 1. ERAKUNDEAK Foru Erkidego horretan gauzatutako eragiketen bolumena ez zaio lurralde erkideari gehitu behar eta, ondorioz, azken horren eragiketa-bolumena ez litzateke % 75era iritsiko.

d) Erakundeak aitortutako eragiketa-bolumenetik, aurreko urteko eragiketen bolumena 6/7 milioi eurotik gorakoa izan zela kontuan izanik eta, azkenik, 1. ERAKUNDEAK helbide fiskala Bizkaiko Lurralde Historikoan duela aintzat hartuta, BFAren ustez, aldi bakoitzean aplikagarria den araudia zein 2007ko eta 2008ko sozietateen gaineko zerga egiaztatzeko eta ikertzeko Administrazio eskuduna Bizkaiko Lurralde Historikoak ezarritakoa da.

e) 2011ko abuztuaren 4an, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak zergapekoari jakinarazi zion 2007ko eta 2008ko ekitaldien sozietateen gaineko zergaren inguruko egiaztapen- zein ikerkuntza-jarduera partzialen

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
9/2012	R5/2015	2015-03-02	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>SZ. Zergaren egiaztapenerako eta ikerkuntzarako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak</i>

hasiera, Z/ZZ Sozietate-taldean izandako barneratzearen jatorria egiaztatzen mugatuta. Horren sozietate nagusia 2. ERAKUNDEA, SAU. da; horri ere ikuskeren-jardueren hasiera jakinarazi zitzaion egun berean.

f) BFAk aipaturako egiaztapen- eta ikerkuntza-jardueren berri izan zuten, erakundeak 2011ko urrian aurkeztutako idazkiaren bidez, eta Zerga Administrazioako Estatu Agentziari inbizioa errekeritzea adostu zuten, 2011ko abenduaren 21ean Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak prestatutako idazkiaren bidez; izan ere, bere ustez, Ekonomia Itunean xedatutakoaren arabera, Bizkaiko Foru Ogasunari dagokio erakundearen egiaztapen- eta ikerkuntza-jarduerak garatzeko eskumena, 2007ko eta 2008ko ekitaldietako sozietateen gaineko zergari dagokionez.

g) Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Araudiaren 13. artikuluko 1. atalean ezarritako hilabeteko epea igaro ostean, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak ez zion erantzun aipaturako inbizio-errekerimenduari, bere eskumena tazituki berretsita. Ondorioz, BFAk gatazkaren aurkezpena jakinarazi zion Arbitraje Batzordeari, 2012ko otsailaren 8an.

3.- Bere aurkezpen-idazkian, BFAk adierazten du, gatazka horretan, 2007ko eta 2008ko ekitaldietako sozietateen gaineko zergaren inguruan aurkeztutako problematika Arbitraje Batzordeak zergapeko berarekin beste zerga-kontzeptu eta zergaldi batzuen inguruan izandako beste gatazka batzuetan aztertutakoa dela. Problematika hori tarifa orokorraren menpe dauden bezeroei energia saltzeko aplikagarria den konexio-puntua da. Egoera horretan daude honako hauek:

- Zerga Administrazioako Estatu Agentziak aurkeztutako 1/2010 gatazka, 2004 eta 2006 arteko ekitaldietako sozietateen gaineko zergaren eta 2005 eta 2007 arteko ekitaldietako BEZaren inguruan;

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
9/2012	R5/2015	2015-03-02	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Zergaren egiaztapenerako eta ikerkuntzarako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak

- BFAk 2010eko apirilaren 14an aurkeztutako 13/2010 gatazka, 2001eko eta 2002ko ekitaldietako sozietateen gaineko zergaren inguruan;
- BFAk 2010eko abuztuaren 30ean aurkeztutako 27/2010 gatazka, 2008ko BEZaren inguruan; eta, azkenik,
- Zerga Administrazioko Estatu Agentziak 2010eko urriaren 11n aurkeztutako 28/2010 gatazka, 2009ko BEZaren inguruan.

BFAk adierazten du, 1. ERAKUNDEAREN kasuan, balio erantsiaren gaineko zergari eta sozietateen gaineko zergari dagozkien eragiketa-bolumena bera dela lurralde bakoitzean. Ondorioz, 2007ko balio erantsiaren gaineko zergari dagokionez, BFAk jadanik eman du bere iritzia, aplikagarriak diren konexio-puntuak interpretatzeko moduari buruzko 1/2010 gatazkaren inguruan aurkeztutako alegazioetan; beraz, «[aipatutako alegazioei] eutsi behar zaizkio euren osotasunean, prozedura-ekonomiarengatik, eta Arbitraje Batzordeak gatazkaren ebazpenerako emandako irizpidearen menpe, bere kasuan, indar bera eskuratzen duenean».

Eta 2008ko ekitaldiko sozietateen gaineko zergari dagokionez, BFAk 2008ko balio erantsiaren gaineko zergari buruzko 27/2010 gatazkarako Arbitraje Batzordearen aurrean aurkeztutako argudioa errepikatzen du, «gatazka honen xederako duen garrantziarengatik»; eta «sozietateen gaineko zergari eta balio erantsiaren gaineko zergari dagozkien eragiketa-bolumena bera direnez erakunde honen kasuan, aurreko argudio guztietatik (...) ondorioztatzen da erakundearen 2007ko eta 2008ko sozietateen gaineko zergaren inguruko ikuskaritza-eskumena eta eskumen arauemailea Bizkaiko Foru Ogasunari dagozkiola».

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
9/2012	R5/2015	2015-03-02	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>SZ. Zergaren egiaztapenerako eta ikerkuntzarako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak</i>

Era berean, BFAk jakinarazten du, Arbitraje Batzorde honen aurrean 2001eko eta 2002ko sozietateen gaineko zergaren inguruan aurkeztutako eskumengataskan, jadanik defendatu zuela Nafarroako Foru Erkidegoa lurralde erkidetzat ez jotzeko bere irizpidea, Ekonomia Itunaren helburuetarako.

Aurkezpen-idazkia amaitu egiten da, «Bizkaiko Foru Aldundiak aipaturako gatazketan gauzatutako alegazio guztietara jota; izan ere, logikoa dirudi pentsatzea, Arbitraje Batzordeak (...) gatazka hau konpondu behar duenean, problematika beraren inguruko aurreko ekitaldiei dagozkien gatazken ebazpena emanda izango duela, jakina, irtenbidea horien inguruan erabakitakoan inspiratuta egongo delako».

4.- 2014ko uztailaren 21eko saioan, Arbitraje Batzordeak gatazkaren izapidea onartzea adostu zuen. Irailaren 26an prestatutako eta irailaren 29ko postazigilua zuen idazkia 2014ko urriaren 9an erregistratu zen eta, haren bidez, Zerga Administrazioko Estatu Agentziako zuzendari nagusiak alegazioak azaltzen ditu. Horietan, bi Zerga Administrazioek zergapeko beraren inguruan antzeko gaiei buruz aurkeztutako eta Arbitraje Batzordeak jadanik ebatzitako gatazkek gogoratzen ditu:

- Pilaturako 8/2008 eta 13/2010 gatazkek [sozietateen gaineko zerga, 2001eko eta 2002ko ekitaldiak] eta 2013ko apirilaren 24ko R7/2013 Ebazpena.

- 1/2010 gatazka [sozietateen gaineko zerga, 2004 eta 2006 arteko ekitaldiak, eta balio erantsiaren gaineko zerga, 2005 eta 2007 arteko ekitaldiak] eta 2013ko maiatzaren 27ko R8/2013 Ebazpena.

- 27/2010 gatazka [balio erantsiaren gaineko zerga, 2008ko ekitaldia] eta 2013ko ekainaren 28ko R10/2013 Ebazpena.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
9/2012	R5/2015	2015-03-02	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>SZ. Zergaren egiaztapenerako eta ikerkuntzarako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak</i>

- 28/2010 gatazka [balio erantsiaren gaineko zerga, 2009ko ekitaldia] eta 2013ko ekainaren 28ko R11/2013 Ebazpena.

Zerga Administrazioko Estatu Agentziak argudiatzen du, lurralde bakoitzean gauzatutako eragiketen ehunekoa zehazteko, kontuan izan behar dela «lurralde erkidearen kontzeptua, bai eta subjektu pasiboak gauzatutako eragiketen konexio-puntua ere»; eta gogoratzen du, bere 7/2013 Ebazpenean (R 8/2013, R 10/2013 eta R 11/2013 Ebazpenetan bezala), 2009ko maiatzaren 26ko Auzitegi Gorenaren Epaiari ezarritako doktrina aplikatuz, Arbitraje Batzordeak erabaki zuela, «Ekonomia Itunaren 14.Bat eta 19.Bat artikuluek aipatzen dituzten eragiketen bolumen-ehunekoen kontaketarako, Nafarroako lurraldea lurralde erkidea dela»; era berean, erakundeak proposatutako lurralde bakoitzari egotzi daitezkeen eta BFAk ere erabilitako eragiketen ehunekoen zenbaketa-metodoa Ebazpen horietan ukatuta (horrek tarifa orokorreko bezeroei energia elektrikoaren hornidura bi eragiketetan (salmenta eta banaketa) bereiztean datza, ondorioz, bi konexio-puntu ezarrita).

Amaitzeko, «BFAk berak gatazka honen ebazpena aurrekariak erabakitako moduari lotzen dionez, eta Arbitraje Batzordea aurreko gatazketan tarifa orokorreko bezeroei energia elektrikoaren hornidura-jarduera bi eragiketetan (salmenta eta banaketa) bereiztearen aurka agertu denez (zehazki, 2007ko ekitaldiko eragiketen bolumena aztertu zuen eta ikuskapen-eskumena Zerga Administrazioko Estatu Agentziari ematen zion 10/2013 Ebazpenean)», Zerga Administrazioko Estatu Agentziak eskatzen du Arbitraje Batzordeak adostea «ZAEA 1. ERAKUNDEAREN 2007ko eta 2008ko sozietateen gaineko zergaren inguruko egiaztapen- eta ikerkuntza-jarduerak garatzeko Zerga Administrazio eskuduna dela (IFZ: ----)».

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
9/2012	R5/2015	2015-03-02	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>SZ. Zergaren egiaztapenerako eta ikerkuntzarako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak</i>

5.- 2014ko azaroaren 10ean prestatutako eta hurrengo egunean, 11n, erregistratutako idazkiaren bidez, espedientea ikusi ondoren, BFAk bere azken alegazioak aurkeztu zituen, gatazka honetan zein aurretik aipatutako gatazketan izandako jarrera defendatzeko erabilitako aurrekariei eta oinarri juridikoei eutsita eta, laburbilduz, honako hau nabarmenduta:

- Eskumen-gatazka honek harreman zuzena duela Arbitraje Batzordeak zergapeko berarekin planteatutako eta jadanik ebatzitako beste batzuekin (horietan, eztabaidatutako gaien bihotza bera da), baina emandako Ebazpenak ez direla finkoak; izan ere, BFAk errekurtsioak aurkeztu ditu Auzitegi Gorenaren aurrean, eta ebazteke daude oraindik.
- Gatazka honen ebazpenean, kontuan izan behar direla BFAk erakundearen inguruan igorritako txostenak; horietan, hori ebazteko argudio esanguratsuak daude.
- «Lurralde erkidean gauzatutako eragiketen bolumenaren ehunekoak zehazteko, Nafarroako Foru Erkidegoan gauzatutako eragiketak pilatu behar ez direla» dioen adierazpenari dagokionez, orain arte mantendutako ondorioak berresten dituela; erakundeak lurralde bakoitzean gauzatutako eragiketen bolumena zenbatzeko, «tarifa orokorreko bezeroen kasuan, bi jarduera (energia elektrikoaren banaketa eta entrega) bereizi eta egotzi behar direla», eta «aipatutako bezero espezifikoeetan jarduerak bitan bereiztea 2009ko uztailaren 1ean amaitu zen aldi iragankorren lege-aginduz ezartzen delako dela»; ondorioz, «2006an eta 2007an lurralde erkidean gauzatutako eragiketen bolumen-ehunekoak ez du % 75 gainditzen eta, beraz, 2007ko eta 2008ko sozietateen gaineko zergaren araudia eta eskumena Bizkaiko Foru Ogasunari dagozkio», kontuan hartuta, aurreko ekitaldietan (2006 eta 2007) gauzatutako eragiketen bolumenak 6/7 milioi euroak gainditzen dituztela.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
9/2012	R5/2015	2015-03-02	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>SZ. Zergaren egiaztapenerako eta ikerkuntzarako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak</i>

6.- 2014ko azaroaren 13ko, 14ko eta 17ko Epaien bidez, Auzitegi Gorenak BFAk eta 1. ERAKUNDEAK 8/2008, 1/2010, 13/2010, 27/2010 eta 28/2010 Ebazpenen aurka aurkeztutako errekurtsioak gaitzesten ditu.

7.- Hala ere, 2014ko azaroaren 25ean, erakundeak aurreko egunean prestatutako alegazio-idazki zorrotza aurkeztu zuen; bertan, «BFAk ondorioztatutako uziaren balioespena adostuko duen» ebazpena ematea eskatzen zitzaion Arbitraje Batzordeari.

8.- 2015eko urtarrilaren 27an sarrera-erregistroa duen idazkiaren bidez, Arbitraje Batzordeari jakinarazten zaio, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasuneko zuzendari nagusiak 9/2012 gatazkaren atzera egitea erabaki duela; izan ere, bere ustez, Koordinazioko eta Laguntza Teknikoko zuzendariordeak 2015eko urtarrilaren 26an igorritako Txostenaren arabera, horren xedea «8/2008, 1/2010, 13/2010, 27/2010 eta 28/2010 gatazkak eragin zituenaren berdintsua da, eta horiek guztiak (...) jadanik ebatzi dira, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren uziak onartuz»; eta kontuan hartuta, gainera, 2014ko azaroaren 13ko, 14ko eta 17ko Epaietan, Auzitegi Gorenak BFAk zein zergapekoak administrazio-bideari amaiera eman zioten Arbitraje Batzordearen Ebazpenen aurka aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsioak gaitzestea erabaki duela, «arbitraje-batzorde honetan ere aurkeztutako gaiak auzibidean eta gauza epaituaren izaerarekin jadanik behin betiko ebatzita, (...) ez baitu zentzurik horiek indarrean mantentzea».

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Gatazka honen xedea da zehaztea lehian ari diren bi Zerga Administrazioetako zeinek duen 1. ERAKUNDEA, S.A. Erakundearen 2007ko eta 2008ko ekitaldietako sozietateen gaineko zergaren egiaztapen- eta



<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
9/2012	R5/2015	2015-03-02	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>SZ. Zergaren egiaztapenerako eta ikerkuntzarako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak</i>

ikerkuntza-jarduerak gauzatzeko eskumena; gatazka sustatu duen BFAk azalpen-idazkian jadanik aitortuta, aurkeztutako problematika (batetik, tarifa orokorraren menpe dauden bezeroei energiaren salmentan aplikagarria zaien konexio-puntuari buruzkoa eta, bestetik, Nafarroako Foru Erkidegoa lurralde erkidetzat jotzeari buruzkoa, Ekonomia Itunari dagokionez) zergapeko beraren eta aldi edo ekitaldi ezberdinetako sozietateen gaineko zergaren zein BEZaren inguruan Arbitraje Batzorde horren aurrean jarraitutako beste gatazka batzuen xedearen berdintsua dela (zehazki, 8/2008, 1/2010, 13/2010, 27/2010 eta 28/2010 gatazkak).

2.- Berritu ondoren, Arbitraje Batzordeak 2014ko uztailaren 21eko saioan gatazkaren izapidea onartu zuenerako, gai beraren inguruan aurretik aurkeztutakoak jadanik ebatzita zeuden, 2013ko apirilak 24 eta ekainak 28 artean. Nolanahi ere, horietako bat ere ezin izan zen behin betiko baketutzat jo oraindik; izan ere, bere izaera betearazlea kaltetu gabe, hartutako Ebazpenak ez ziren sendoak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta erakunde interesdunak Auzitegi Gorenaren Hirugarren Epaimahaiaren aurrean horiei errekurtsua jarri zizkietelako, administrazioarekiko auzibidean.

3.- 2014ko irailaren 26ko alegazioetan, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak adierazi bezala, egia da, gatazka horren aurkezpenean, BFAk horren ebazpena eta aurrekoen erabakia lotestu zituela, «Arbitraje Batzordearen (...) ebazpenetik ondorioztatutako irizpideari men eginda (...) hori sendotzen denean» (Hirugarren Oinarria). Baina gertatzen da, 2014ko azaroaren 10ean, BFAk bere azken alegazioak egiterakoan, Auzitegi Gorenaren aurrean aurkeztutako errekurtsuak ebazteke zeudela (Zortzigarren Aurrekaria); beraz, Arbitraje Batzordeak hartutako Hitzarmenen sendotasun-falta zela eta, BFAk bere eskumena Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurrean defendatzeko egokitzat emandako oinarri juridikoak legitimotasun osoarekin mantentzen jarraitu zuen, errekurtsuak aurkeztutako Ebazpenetan Arbitraje Batzordeak

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
9/2012	R5/2015	2015-03-02	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>SZ. Zergaren egiaztapenerako eta ikerkuntzarako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak</i>

izandako jarrera (aurreko gatazketan izandako bera, nagusiki) hori ez zela jakinda.

4.- 2014ko azaroaren 13ko, 14ko eta 17ko Epaien bidez, Auzitegi Gorenak BFAk eta 1. ERAKUNDEAK aurkeztutako errekursoak guztiz gaitzesten ditu, errekurtoa aurkeztutako Ebazpenen Zuzenbidearekiko egokitzapena behin betiko berretsita eta, era berean, gatazka honen (2007ko eta 2008ko sozietateen gaineko zergari buruzkoa oraingoan) berdintsuak diren gaien inguruan, bi Administrazioen artean sortutako gatazkek baketuta.

5.- Komeni da gogoratzea, Epai bat bere terminoetan gauzatzeak (EE 118 artikulua eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 103 artikulua) interes publiko konstituzionala duela, eta horrek gatazkan lehiatutako alderdien interesak gainditzen dituela; hala ere, gaitzespen-epaiak direnez, dagokion betearazpena errekursoak jarritako eta judizialki berretsitako administrazio-ebazpenena da, eta ez, betearazpenari dagokionez, horien indar betearazleari ezer kentzen edo eransten ez dioten Epaiena.

Bi Administrazioek zergapeko berarekin eta problematika berdintsuarekin aurretik hasitako gatazkei buruzko Arbitraje Batzordearen Hitzarmenak behin betiko judizialki berretsi ondoren, ez dago inolako arrazoirik gatazka honen irtenbidea termino berdinetan atzeratzeko; batez ere, Arbitraje Batzordeak aurkeztutako guztiak bere jarduera-aukera errealean barnean ebatzi behar dituenean, ekonomiarekin, bizkortasunarekin eta eraginkortasunarekin (Ekonomia Itunaren 67. artikulua). Halaber, ez litzateke arrazoirik egongo proposamena egin duen Administrazioa eskumen-gatazkaren liskarra pasiboki baimentzera mugatzeko, hori ahalbidetuta, aurreko gatazketan egoitza judizialean ere defendatutakoarekin bat datorren uzia behin betiko gaitzetsi denean.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
9/2012	R5/2015	2015-03-02	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Zergaren egiaztapenerako eta ikerkuntzarako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak

6.- Hortik, Arbitraje Batzorde horren aurreko Ebazpenek lortutako sendotasunak eta Administrazio Publikoen arteko harremanetan eskatu daitezkeen koherentziako, fede oneko eta leialtasun instituzionaleko betebeharrak gatazka hau sustatu duen Administrazioa dagokion moduan jokatzera behartzea.

Kasuaren baldintzaz arduratuta, atzera egitea izan da Bizkaiko Foru Aldundiaren dagokion moduan jokatzeko modua 9/2012 gatazkari dagokionez; izan ere, «arbitraje-gatazka honetan ere aurkezten diren gaiak bide judizialean behin betiko ebatzita eta gauza epaituaren izaerarekin (...) ez du zentzurik indarrean mantentzea (...)».

Azken buruan, hori da ere bai Arbitraje Batzordearen Araudiaren 9. artikulutik ondorioztatu daitekeen erabakia; izan ere, «Justizia Epaitegiek ezin badute, inola ere, jadanik ebatzitako gaiei buruzko gatazkarik aurkeztu», ebazpen judiziala izan ondoren, ezin izango litzateke justifikatu ere, arrazoi-nortasuna dela eta, gai horiek «ebatzi edo Justizia Auzitegiek ebazteke egon» aurretik hasitakoen liskarra mantentzea.

7.- «Ebazpenak hartzeari, jarduteko araubideari eta prozedurari (...) dagokion guztian» (Administrazioarekiko Auzi Prozesuaren Errekurtsoaren 8. artikulua), Arbitraje Batzordeak bete beharreko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 87. artikulua araberaren eskaeraren edo uziaren ukoa prozedura amaitzeko modu bat da; kasu honetan eta aurretik aipatutako arrazoiak direla eta, uko hori gatazka sustatu duen Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasuneko zuzendari nagusiak adostu zuen zentzuz eta arretaz, sarrera-erregistroa 2015eko urtarrilaren 27an duen idazkian.

Beraz, Arbitraje Batzordeak

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
9/2012	R5/2015	2015-03-02	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Zergaren egiaztapenerako eta ikerkuntzarako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak

### **HONAKO HAU ADOSTEN DU:**

- 1.- 9/2012 gatazka amaitzea, Bizkaiko Foru Aldundiak eta jardueren artxiboak modu kontsekuentean adostutako ukoaren ondorioz.
- 2.- Hitzarmen hau Bizkaiko Foru Aldundiari eta Zerga Administrazioko Estatu Agentziari jakinaraztea, bai eta erakunde interesdunari ere.